

ZER GELDITZEN DA...?

Urki Bilbao

Ondarroa, 15 urte

Haizea

ate joka datorkit,

etenik gabe jarraitzen nauten oroitzapenekin,
hildako maitasunei buruz hitzegiten...

murmurioetan galdutako agintzariak,

ihartutako zoriontasuna,

lapurtutako musuak...

Apal batean hautsak jana

ahantzirik daukakegun poesiako liburu zahar

batean

lurrindutako hostoak kausitzean...

Ezinbesteko galdera:

Zer gelditzen da guzti hartaz?

Etxean berogailuaren epela besterik ez,

erdi zabalik dagoen leihotik so

asagoko elkarrenganako desio kiskalia baretzen

genuen parkea,

gure bihotzen pare

orain huts...

maiatasuna jesartzen genuen bankua

huntzez estalirik...

Zure begiradaren izkinan

banku hura aurkitu nahi nuke berriz,

bertan eserita

erretzen nengokeen
zigarroaren keak
airean dabilzkidan ideiak hesitu
eta ihes joan ez daitezten.

Arrastiri euritsu batean,
parke huts hartan,
huntzak zer estaltzen zuen jakin guraz
denborak osaturiko kapa lodia baztertu
eta giltzez zizelaturiko bihotza kausitzean
puskaturik agertu zitzaidan.

Orduan jabetu nintzen,
belarrira bertsoak xuxurlatzen zenizkidan gauak
izarrik gabe gelditu direla
eta ilargiak ez didala keinurik egin aspaldion
begira jartzen gintzaizkionean legez
noizbait pintura orlegiz jantziriko banku hartatik.